



Euskal Herriko babesletzaren deialdia zirkuko artistentzat TRAVESIA – ZIRKUKO PIRINIOAK proiektuan laguntzeko plana

-> Proiektuak onartzeko azken eguna: 2020ko uztailaren 26a

Proiektu honen helburua da gaur egungo zirkuaren sorkuntza eta hedakuntza erraztea Pirinioetako mugaren alde bietako eskualdeetan. Horretarako, zirkuko artistei laguntza emateko ekintzak erabiliko dira, profesionalekin harreman solidarioak sortuz eta sendotuz: sorkuntzako zentroak, ekipo artistiko hasi berriak eta finkatuak, ekoizpen-bulegoak, agenteak eta programatzaileak.

Zeharkaldiak laneko arlo bi uztartu nahi ditu:

- Artisten premia larriei erantzutea, sorkuntzarako eta zabalkunderako baliabideei dagokienez.
- Profesional guztiek esperientziaren bidez elkarrengandik ikasteko dinamikan parte hartzea, gure ekintza-ereduak lankidetzara eta elkartasun handiagorantz garatzeko.

Mugaren alde bietako 8 bazkidek jarri dute abian eta ekintza berritzaileak egin nahi ditu, adibidez:

- Maratoi sortzaile bat (Hackathoia), artistei laguntzeko ibilbideak diseinatzeko eta profesionalen arteko elkarrizketa sustatzeko.
- Konpainien eta laguntza-egituren arteko lankidetzara solidarioak.
- Laguntzarako funtsa komuna ikerketarako eta sorkuntzarako.
- Espazio publikoan sortzeari buruzko laborategia.
- Programazio-sare bat artistei lehen urratsetan laguntza emateko eta programatzaileak lagun egitearen garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko.
- Koronabirusaren krisiak hondatutako tesuinguruan, artistak eta sektorea berreskuratzeko ekintza-programa bat sortzen ari da, eta uztailaren amaieran argituko dugu. Programazio



EGEFek finantzaturako proiektua

Eskualde bakoitzeko merkatuek bertan lan egiten duten artistei aukera nahikorik eskaintzen ez badiete, mugaz gaindiko espazioa nahiko lurralde zabala da lehen eremu bat eratzeko eta taldeak beren ikuskizuna osatzeko, sortzeko, zabaltzeko eta, batez ere, beren talentua hedatzeko, berezitasun eta arte-bikaintasun handia lortzeko. Mugaz gaindiko eremuko egoeren aniztasunak, eskualde bakoitzeko indarren eta ahultasunen arteko osagarritasunek lankidetzarako gune ezin hobea eskaintzen dute elkarrekin ikasteko eta jarduteko.

Zirkuko arteetan, lehenetsuna dauka artistak eta profesionalak laguntzeko metodoak eraldatzeak, mugaz gaindiko eta Europako testuinguru berrira egokitzeko.

Lagun egiteko programa honek konpainiak profesionalizatzea eta finkatzea erraztuko du eremu artistikoan, juridikoan, administratiboan eta merkatuan. "Euskal Herriko babesletza" programa hau ZEHARKALDIA – ZIRKUKO PIRINIOAK proiektuko bi bazkidek zuzenduko dute: Bilboko Udalak eta Euskal Hirigune Elkargoak. Erakunde horiek babesletza kudeatuko dute, lehen aipatutako esparruetan adituak diren konpainia eta pertsonen sorkuntzarako eta esku-hartzeetarako laguntzen bidez, eta bulego tekniko batek koordinatuko du.

"Euskal Herriko babesletza" **3 edo 4 konpainiari** laguntzea izango da, urte eta erdian, **beren sorkuntza-prozesuak ahalbidetuz laguntza ekonomikoekin eta artistikoekin** (egonaldiak, kanpoko begiradak, masterclass), **prestakuntza zabalduz** (zirkuko eta beste arte-diziplina batzuetako teknika) eta **profesionalizaziorako aholkuak emanez** (juridikoa, administratiboa eta marketina).

Euskal lurraldean bizi diren 3 edo 4 konpainiek (hau da, Euskal Herriko zazpi probintzietako batean bizi behar dute) ZEHARKALDIA / ZIRKUKO PIRINIOAK proiektuko bi bazkideren laguntza izango dute 2020ko irailetik 2022ko otsailera bitartean, eta ikerketa pertsonaletan prestakuntza, sorkuntza, bitartekaritza eta administraziorako laguntza jasoko dute. Hala ere, aurreko babesletzarekin alderatuta (DE MAR A MAR – ZIRKUKO PIRINIOAK), profesionalizazioa bultzatzeko helburua mugaren alde bietan zabaldu daitekeen ikuskizun berri bat sortzen laguntzea izango da.

Adituek emandako prestakuntzak bitartekotza-ekintza osagarrien bidez (masterclass irekiak, sentsibilizazioa...) elikatuko du inguruko sektorea.

Profesionalizazioari laguntzeko aurreikusitako ekintzak:

Hautatutako konpainia bakoitzaren beharretara egokitutako profesionalizazio-ibilbidea prestatzea, hauekin:

- **5 eguneko egonaldi bi**, aukeratutako konpainia bakoitzak ikuskizuna sortzeko
- bazkideen eta enpresaren artean adostutako profesional baten **kanpo-begirada**
- **zirkuko teknikan trebatzeko** saio batean parte hartzea (hautatutako konpainia bakoitzaren beharren arabera)
- Zirkuko tekniken **masterclassetan** parte hartzea (konpainia bakoitzaren beharren arabera)



- profesionalizazioari, produkzioari eta hedapenari **administrazio-laguntza** pertsonalizatua ematea (enpresa egituratzeko tresnak, koproduktoreak bilatzea, txostena prestatzea, aurrekontua aurkeztea, etab.).

Aldi berean, hautatuz gero, **Hackathoi** izeneko topaketa batean parte hartu ahal izango da Frantziako Tolosan urtarrilaren amaieran, hiru egunez. Hackathoia esperientzia berria da eta ikaskuntzaren dimentsioa dakarkie bai artistei bai haien inguruan lan egiten duten pertsoneri (kanpoko begirada, eszenografoak, ekoizpeneko eta banaketako arduradunak, agenteak...).

Halaber, **kaleko laborategian** parte hartzeko aukera egongo da Ax Les Thermes-en 2020ko urrian astebete beste astebete Bilbon 2021eko otsailean. Eremu publikorako ikerketa- edo sorkuntza-proiektu bat egiten duten artistentzat da laborategi hau. Kalea sorkuntzarako espazio natural gisa ulertzea, errendimenduak espazio publikoan dauzkan desfioak eta mugak hobeto ulertzea eta sare profesionalera irekitzea.

Laguntza ekonomikoa:

Programa honen barruan eskura dagoen laguntza **5.000 eurokoa** da (BEZa barne) hautatutako konpainia bakoitzarentzat, sorkuntza-prozesuekin lotutako mugikortasun, prestakuntza eta gastuak ordaintzeko.

Enpresek faktura bat aurkeztu behar dute nahitaez laguntzaren zenbatekoa jasotzeko; beraz, garrantzitsua da horretarako nortasun juridikoa izatea, edo enpresa edo kooperatiba batek ordezkatzeta.

Gastu guztiak fakturen/nominen eta ordainagiriaren bidez justifikatu beharko dira.

Lurraldea:

Jarduerarik gehienak **Euskal Herrian** egingo dira eta, beharrak ikusita, Pirinioen mugaren alde bietako beste leku batzuk aukeratuko dira, hala nola Frantziako Tolosa, Bartzelona edo Ax Les Thermes.



HAUTAGAITZAK ETA AUKERAKETA-PROZESUA

Proiektuak onartzeko azken eguna: 2020ko uztailaren 26a

Hautagaitzaren txostenak elementu hauek izan beharko ditu:

- **Hautagaitzaren inprimakia**, osorik [hemen](#)
- **Hautaketa erraztuko duen edozein elementu osagarri**, hala nola curriculuma, aurreko lanen txostena, proiektuaren lehen ideien grabazioak edo/eta argazkiak, aurreko lanen bideoa edo esteka.

Dokumentu guztiak PDF formatuan bidali behar dira **posta elektronikoz** (gehienez ere 3 MB), helbide hauetara: x.claverieu@communate-paysbasque.fr eta pormazabal@bilbao.eus.

Artista batek edo gehiagok osatutako konpainia bat aurkez daiteke deialdira.

Hautaketaren egutegia:

- Lehen aukeraketa, txostena ikusita: **2020ko irailaren hastapena.**
- **Irailaren 8a eta 16a artean** : elkarrizketa lehen aukeraketan dauden konpainiekin (osasun-larrialdiko neurriak ahalbidetzen badute).
- Behin betiko erabakia: **2020ko iraileko hirugarren astea.**

Lurralde-babeseko bi bazkideek (Bilboko Udala eta Euskal Hirigune Elkargoa) eta bulego teknikoak osatutako batzorde batek egingo ditu hautaketak eta hartuko ditu erabakiak.

Hauek baloratuko dira:

- Artisten motibazioa.
- Konpainiaren eta bertako artisten ibilbidea.
- 2020ko irailaren eta 2022ko maiatzaren artean libre egotea.
- Aurkeztutako sorkuntza-proiektuaren ideia.

hitzarmen bat egingo dute aukeratutako konpainia bakoitzak eta bazkide biek.
ZEHARKALDIA – ZIRKUKO PIRINIOAK programaka bazkideek deialdia eman gabe uzteko eskubidea daukate.

Informazio gehiago:

*Pedro Ormazabal (BILBOKO UDALA): pormazabal@bilbao.eus
Xabina Claverie-Urruty (EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA) :
x.claverieu@communate-paysbasque.fr*



EGEFek finantzatutako proiektua

Zeharkaldia – Zirkuko Pirinioak 2019-2022 aldirako lankidetzaproiektu bat da eta 1.154.994 euroko aurrekontua dauka. Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren bidez eta Interreg V-A España-Francia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2014-2020). POCTEFAREN helburua mugaldekoko integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da.



EGEFek finantzaturako proiektua